

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 1943

GAIA: Dirulaguntza zuzena (2024)

ESPEDIENTEA: 2024DDI20004

INTERESDUNA: CLUB DEPORTIVO AUTOMOVILISTICO ESKO MOTOR (IFK: G75111989)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 3.000,00 € euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du CLUB DEPORTIVO AUTOMOVILISTICO ESKO MOTOR-ren alde, 2024. urtean antolatuko duen III.rallysprint-ak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Kiroldegiko kirol aholkulariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta CLUB DEPORTIVO AUTOMOVILISTICO ESKO MOTOR-ren artean egin beharreko hitzarmena .

BIGARRENA.- CLUB DEPORTIVO AUTOMOVILISTICO ESKO MOTOR-ri 3.000,00 €-ko dirulaguntza ematea, 2024. urtean antolatuko duen III.rallysprint-ak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren hamargarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren % 60 ordaintzea (1.800 €) hitzarmena sinatu eta kirol aholkulariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 3.000,00 €-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0300.481.341.90.01 partidari egozte.